

Fedea dugu auzitan

Euskaldunon Egunkaria, 1991-05-07: 3.

Eusko Jaurlaritzan Kulturako Sailburu den Joseba Arregi jaunak adierazi duenez: euskal egunkari bat "ezin da sekula" euskaldunentzat lehenengoa izatea iritsi, beraz ez du zentzurik erdarazkoen antzeko egunkaria egitea, egunkari normal bat egitea.

Alde batetik, kazetaritzan "debekatua" dago "sekula" eta "beti" adberbioak erabiltzea (euskaraz esaten dugu: "betirako", Jainkoa), arrisku handiko afirmazioa delako.

Bestetik, hau da proiektu berriaren ikuspegi "errealista".

Beraz, euskaldunontzat erdarazkoarekin gosalduek eta gero, eta ahal dugunean, irakurtzekoa izango da: "familiako kide guztiei" irratiek dagoeneko belarrietatik sartu dizkieten *berri lokalak* idatziz ematekoa.

Eta prest daude operazio honetarako urtean 900 milioi pezetako defizita jasatera.

Hau dena errealista eta ilusiorik egin gabe pentsatua da, esaten denez. Bada, hauxe falta da hemen, gauzak egiten saiatzeko beharrezko den ilusio apur bat, eta orokorki euskaraganako behar den fede apur bat. Arregi jaunari bere asesoreek egin dizkioten kalkulu hauek ez dira gezurrezkoak, horrela ere egin bait daiteke segundako egunkaria eder bat, "couché" papera eta kolorez hornitua, batez ere honetarako Legebiltzarrak dirua eskuan jartzen badio.

Hau ez da EGUNKARIA egiten ari garenon kasua.

Geuk ez dugu dena ongi egingo, baina egiazko egunkari bat egiten saiatzen gara, eta ahal den ekonomia handienarekin; ez da oraindik ogi beroa bezala saltzen, baina ikusi dezakezuen bezala, kalegorrian konpetentziako kioskoetan saltzen da, zuzenki etxera goizean eramateko harpidedunei ere zerbitzu hau ematen ari gara. Ez gaude lo. Halere bidea ez da erraza; hala balitz; honez gero aspaldi egina izango zen euskal egunkaria gure zai egon gabe, eta Jaurlaritzaren erdarazkoei ematen zaien publizitate instituzionalik gabe oraindik zailago.

Zailtasun hauen aurrean, zera eskaintzen dugu apirilaren 20an egin berria dugun akzionisten biltzarrean onartu bezala; emango liguken laguntzaren truke, Jaurlaritzari geure Administrazio Kontseiluan leku bat.

Hala jakingo lituzke gure asmoak eta zifrak.

Hara arazo honen aurrean gure asmo batzu eta jarrera garbia.